

Biribilko 2016-2017 ikastaroen ebaluazioa

Biribilko 2016-2017 ikastaroetan parte hartu duten merkatariak egindako balorazioaren emaitza nagusiak eskaintzen ditugu jarraian.

1. 2016-2017 Ikastaroen ezaugarriak eta matrikulazioari buruzko datu nagusiak

1. IKASTAROEN ESKAINTZA

A. EUSKARA KOMERTZIALEKO OINARRIZKO IKASTAROA	
HARTZAILEAK	Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Bilboko establezimenduetako merkatari edota enplegatuak.
HELBURUA	Ahozko oinarriko komunikazioa lantzea, merkataritzako egoera arruntetarako hizkuntza-oinarriak ematea.
IRAUPENA	90 ordu.
ORDAINDU BEHARREKO MATRIKULAREN PREZIOA	90,00 €. Euskaltegietan adieraziko dizute nola ordaindu behar duzun matrikula.
B. EUSKARA KOMERTZIALA HOBETZEKO IKASTAROA	
HARTZAILEAK	Euskara zerbait hitz egiten dakiten Bilboko establezimenduetako merkatari edota enplegatuak.
HELBURUA	Merkataritza arloko ahozko eta idatzizko euskara maila hobetzea.
IRAUPENA	90 ordu.
ORDAINDU BEHARREKO MATRIKULAREN PREZIOA	90,00 €. Euskaltegietan adieraziko dizute nola ordaindu behar duzun matrikula.

2. DATAK, EGUNAK ETA ORDUTEGIAK

DATAK		ASTEKO KLASE EGUNAK	KLASE ORDUTEGIAK
2 aukeretako bat hautatu		Astean 2 egun	Aukeratzeko: goizez ala eguerdiz
1. AUKERA	Hasiera: 2016-urria-17 Amaiera: 2017-ekaina-21	Astelehenak eta Asteazkenak	1. Goizez: 8:00 - 9:30 2. Eguerdiz: 14:15 - 15:45
2. AUKERA	Hasiera: 2016-urria-18 Amaiera: 2017-ekaina-22	Astearteak eta Ostegunak	1. Goizez: 8:00 - 9:30 2. Eguerdiz: 14:15 - 15:45

3. BIRIBILKO IKASTAROETAN MATRIKULATZEKO INFORMAZIOA

MATRIKULATZEKO EPEA	2016ko irailaren 12tik urriaren 6ra arte.
MATRIKULATZEKO MODUAK ETA KLASAK HARTZEKO LEKUAK	<p>Matrikulazioa bi modutara egin daiteke: Biribilko web orriaren Heziketa atalean aurkitzen den izen-emate formularioa online betez; edo bestela, ondoren aipatzen den euskaltegiren batera joanda. Klaseak ere horietan emango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - BILBO ZAHARRA, <i>Posta kalea, 8</i> (Tel: 94 4158292) - GABRIEL ARESTI, <i>Done Bikendi kalea, 2 - 4. solairua</i> (Tel: 94 4237591) - INDAUTXUKO AEK, <i>Urkixo Zumarkalea, 88 - 1. A</i> (Tel: 94 4413474) - JUAN MATEO ZABALA, <i>Gordoniz kalea, 22</i> (Tel: 94 4221388) - LIZARDI AEK, <i>Txakur kalea, 1 - 1.</i> (Tel: 94 4168200) - MATXINTXU AEK, <i>Ramón y Cajal Etorbidea, 8</i> (Tel: 94 4752233) - SANTUTXUKO AEK, <i>Arbidea kalea, 21</i> (Tel: 94 4117656) - ULIBARRI EUSKALTEGIA, <i>Gardoki kalea, 3 - 1.</i> (Tel: 94 4162472)

1. Taula: Biribilko 2016-2017 ikastaroen matrikulazioari buruzko datu nagusiak

		Kop.	%
Ikastaro mota	Euskara komertzialeko oinarrizko ikastaroa (90 ordukoa)	100	58,8
	Euskara komertziala hobetzeko ikastaroa (90 ordukoa)	70	41,2
Klase egunak	Astelehen eta asteazkenak	79	46,5
	Astearte eta ostegunak.....	91	53,5
Klaseen ordutegia	Goizez: 8:00-9:30	50	29,4
	Eguerdiz: 14:15-15:45	120	70,6
GUZTIRA		170	100,0

Iturria: Siadeco, 2017

2016-2017 ikasturtean, guztira 170 izan dira Biribilko ikastaroetan matrikulatu diren merkatariak, aurreko ikasturteetan lortutako antzeko kopuruetara (iaz baino gutxiago: 182 izan baitziren) eta orain dela urte bi baino gehixeago (157 izan ziren).


Horietatik gehienak euskara komertzialeko oinarrizko ikastaroetan matrikulatu dira (10etik ia 6). Guztira, 17 ikasle talde osatu dira: 10 oinarrizko ikastaroan eta 7 hobetzekoan.

Ikasleen %53k astearte eta ostegunetan aukeratu dute klaseetara joatea eta %46k astelehen eta asteazkenetan.

Ikasleen gehiengo nabarmena (%71) eguerdiko ordutegian (14:15etatik 15:45etara) joan da klaseetara eta %29 goizekoan (8:00etatik 9:30era).


2. Ikasleen ezaugarri soziodemografikoak

1. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleak sexuaren arabera - bilakaera (%)



Euskara ikastaroetan parte hartu duten Bilboko merkatarien artean gehienak emakumezkoak izan dira, hamarretik zazpi pasatxo (% 75) hain zuzen ere. Joera hau bat dator aurreko ikasturteetan antzemandakoarekin.


2. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleak adinaren arabera - bilakaera (%)



Adinari dagokionez, iazko datuekiko aldeak oso txikiak izan arren, gora egin du apur ba adinak. Izan ere, zertxobait gehiago dira 41 urte edo gehiago dituzten ikasleak (4 puntuz egin dute gora), eta gutxiago aldiz, gazteak, 30 urtez beherakoak (3,4 puntu gutxiago).

3. Ikasleek lan egiten duten merkataritza establezimenduaren jarduera-adarra eta kokatuta dagoen auzunea

3. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleek lan egiten duten establezimenduaren jarduera adarra (%)



Iturria: Siadeco, 2017


Ikasleen ia %25ek zerbitzu establezimenduren batean egiten dute lan. Jarraian datoz

jantzi edo oinetako denda batean lan egiten dutenak (%19), eta bestelako produktuak eskaintzen dituzten dendetan lan egiten dutenak (%17) (optikak, jostailuak, bazarrak, argazki-dendak e.a.).

Gainerako jarduera adarren pisua baxuagoa da.

lazko datuekin alderatuta, aurten gora egin du jantzi eta oinetako dendetako langileen pisuak eta beheara aldira IKT establezimenduetako langileena

4. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleek lan egiten duten establezimendua kokatuta dagoen auzoa (auzo nagusiak) (%)




Iturria: Siadeco, 2017

Hamar ikasletik 6k, honako lau auzoetako batean egiten dute lan: Abando (10etik 2k), Indautxu (10etik 2k), Zazpi Kaleak (10etik 1ek) eta Santutxu (10etik 1ek). Gainerako auzoetan lan egiten dutenak gutxiago dira.

Aurreko ikasturtearekin alderatuta, aurten gora egin du auzo nagusi hauetaz kanpoko “bestelako” auzoetan lan egiten dutenen pisuak eta hauekin batera, baita Basurtun eta Santutxun lan egiten dutenena ere. Aldiz jaitsi egin da Zazpi Kaleetako establezimenduren batean lan egiten dutenen portzentajea eta baita Indautxun lan egiten dutenena ere.

4. Euskara ikastaroetan matrikulatzeko motibazioa

5. Grafikoa: Euskara ikastaroan matrikultzeko arrazoi nagusia (%)



Iturria: Siadeco, 2017

Ikasleen erdiek (%49k) “euskara ikasteko” edo “ikasitakoa berreskuratu eta hobetzeko” gogoak bultzatuta eman zuten izena (euskara zein esparrutan erabiltzeko nahi duten zehaztu gabe). Horien artean daude, bai, “euskara ikastea” besterik erantzun ez dutenak (%31) eta baita “lehendik zekitena berreskuratzea, jarraitzen ikastea, hobetzea” erantzun dutenak ere (%19) (beraz noizbait ikasten ibilita, gutxieneko euskara maila lortu zutenak).

Euskara ikasteko motibazio nagusia, esparru jakin batean erabiltzeko gaitasuna lortzea dela zehaztutakoaren artean, matrikulatutakoaren %22k lanbidearekin loturiko alderdiren bat aipatzen dute: “interes-profesionala” deitu dioguna (“bezeroekin hitz egin”, “lanean euskaraz egin ahal izatea”...).


Ikasleen %13k “interes pertsonal eta profesional” modura sailkatu ditugun arrazoiak aipatu dituzte (“seme-alabekin eta bezeroekin hitz egin ahal izatea”,..), eta %7k “interes pertsonal” gisa sailkatu ditugun arrazoiak (“seme-alabekin hitz egiteko”, etab...).

Ikasle multzo bat ere bada (%6) ikastaroen ezaugarriak animatuta matrikulatu zena (“ordutegia”, “erritmoa”, etab.)

Aurreko datuok erakusten dute beraz, esplizituki, euskara ikasteko arrazoi nagusi gisa interes profesionalarekin (soilik edo pertsonalekin batera) loturiko alderdiren bat aipatu dutenak %35 izan direla, eta merkatariari eskainitako ikastaro espezifikoen ezaugarriaren bat aipatutakoak %6

5. Euskara ikastaro ez egindako balorazioa

6. Grafikoa: Ikastaroaren alderdi desberdinen inguruan ikasleek egindako batez besteko balorazioa, ikastaro motaren arabera (0tik 10erako eskalan)



Iturria: Siadeco, 2017.

Biribilko ikastaroetako euskara ikasleek ikastaroaren alderdi desberdinei emandako batez besteko puntuaketa ona da zalantzarik gabe. Zeretik hamarrerako eskala batean, batez besteko orokorra 8,44 da, eta alderdi guztiak 9,03 eta 7,28 artean puntuatzen dira. Oinarrizko ikastaroetako ikasleen balorazioak, oro har, zertxobait altuagoak dira hobekuntzako ikasleentzako baino, baina aldeak txikiak dira.

Batez besteko balorazio altuenetik hasita, hauexek ikasleek egindako balorazio nagusiak:


- Puntuaketarik altuena lortzen duten lau alderdiak, 8,75 puntutik gora, irakasleak, ikasle taldea, euskaltegiaren kokapena eta prezioa izan dira.
- Zertxobait beherago, batez bestekoaren inguruan, matrikultzeko prozedura, ikastaroa emateko datak eta ordutegia.
- Batez bestekoaren zertxobait azpitik, batez beste 8,2-8,3 puntu artean jaso dituzte irakaskuntza sistemak, ikastaroaren iraupenak, erabilitako materialak eta irakatsitako edukiak.
- Puntuaketarik baxuena jaso duen alderdia, 7,28 punturekin, klasearen homogeneotasuna.

Irakasleen balorazioa ere positiboa izan da (batez besteko orokorra 7,88). Irakasleek puntuaketarik altuena ikastaroaren prezioari eman diote (9,06 puntu) eta bigarren altuena ikasleek klasean adierazitako interesa eta parte-hartzeari (9,00). Atzetik datoz erabilitako irakaskuntza sistema (8,76 puntu), taldearen tamaina (8,24) eta ordutegia (8,06).

Irakasleek, ikasleek bezala, klaseko ikasleen euskara mailaren homogeneotasunari ematen diote puntuaziorik baxuena (6,24).

6. Ezagutzen pertzibitutako aurrerapenak, ahoz eta idatziz

7. Grafikoa: Ikastaroa hasi aurretik zuten euskara komertzialeko ezagutza maila -ahoz eta idatziz- eta amaitutakoan lortutakoa, ikastaro motaren arabera (batez besteko balioak 0tik 10erako eskalan)




Iturria: Siadeco, 2017

Bi ikastaro motetan parte hartu duten ikasleek aurrerapen adierazgarria igarri dute euren ahozko nahiz idatzizko euskararen ezagupen mailan ikastaroak amaitu ostean:

- Oinarrizko ikastaroetako ikasleen iritziz, beren abiapuntuko batez besteko ezagutza maila ahoz 2,48 izatetik, 4,83 izatera pasa da; eta idatzizkoa 2,56 izatetik, 4,78 izatera.
- Hobekuntza ikastaroetan berriz, ahozko batez besteko euskara maila hasieran 4,56 izatetik ikastaroa amaitutakoan 5,86 izatera pasa da; idatzizkoan berriz, 5,11tik 6,14ra.

7. Biribiko ikastaroetan berriz matrikulatzeko interesa eta aholkatze-maila beste merkatariak ikastaroetan parte har dezaten

8. Grafikoa: Bibirbilko ikastaroetan berriz ere matrikulatzeko batez besteko interesa eta zenbateraino aholkatuko lioketen beste merkatari bati (batez besteko balioak 0tik 10erako eskalan)



Iturria: Siadeco, 2017

Ikastaroetan ibilitako ikasleek, datorren ikasturtean Biribilko ikastaroetan berriz ere matrikulatzeko agertutako interes-maila, oso altua dela esan daiteke: 0tik 10erako eskala baten 8,28koa hain zuzen ere. Interes-maila gainera oso antzekoa da oinarrizko ikastaroa zein hobetzekoa egin dutenen artean (8,29 eta 8,27 hurrenez hurren).

2016-2017 ikasturtean, hurrengo ikasturtean Biribilko ikastaroetan berriz ere matrikulatzeko ikasleek adierazitako interes-maila orokorra, 2015-2016 ikasturtean adierazi zutena baino zertxobait altuagoa da (aurten 8,28 eta iaz 8,13).

Aurrera begira berriz, euskara ikastaro horietara joan daitezten beste merkatariak aholkatuko lituzketela garbi erakusten dute datuok; izan ere 0tik 10era doan eskalan, 8,80 puntukoa da batez besteko aholkatze-maila; zertxobait altuagoa oinarrizko ikastaroa egin dutenen artean (8,96), hobetzekoa egin dutenen artean baino (8,58).

Datorren ikasturtean Biribilko ikastaroak ematen jarraitzeko zenbaterainoko interesa duten galdetuta, irakasleek ere interes-maila altua adierazi dute (7,85).